



Esp. kodea: 2025SSEC0047

Gaia: ARAUDI PLANA 2026
Hasiera eguna: 2025/12/10

ZIURTAGIRIA

NIK, Ana Belen Hidalgo Corral andrea, ARRASATEKO UDAL AGURGARRIKO IDAZKARIAK,

ZIURTATZEN DUT:

Udaleko Osoko Bilkurak, 2026ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, besteak beste, erabaki hau hartu zuen:

“2026KO ARAUDI PLANA ONARTZEKO PROPOSAMENA (2025SSEC0047)

Udalbatzarra osatzen duten legezko 21 zinegotzietatik 19 bilkuran daudela, Udaleko Osoko Bilkurak, aldeko 19 botorekin (EH BILDU, EAJ-PNV, SOCIALISTAS VASCOS-EUSKAL SOZIALISTAK eta ELKARREKIN ARRASATE), Pertsonen batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“2016ko urriaren 2an sartu zen indarrean 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

Horren 132. artikulua honakoa dio:

“132. artikulua. Arau-plangintza.

1. Herri-administrazioek, urtero, araugintza-plan bat argitaratuko dute. Bertan, hurrengo urtean onesteko aurkeztuko diren lege- edo erregelamendu-ekimenak jasoko dira.

2. Urteko Araugintza Plana onartu ondoren, dagokion Administrazio Publikoaren Gardentasunaren Atarian argitaratuko da.”

Hala ere, Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 24ko, 55/2018 Epaia adierazi zuen artikulua hori eskumenen konstituzio-ordenaren aurkakoa zela, 7 b) eta 7 c) oinarri juridikoen arabera.

Behin 132. artikulua konstituzio-kontrakotasuna deklaratu, ezerk ez du eragozten toki-erakundeak, bere erregelamendu-ahala aplikatuz, araudi planean aurreikusi gabeko ordenantzak edo erregelamenduak onartzea.

Araudi planaren izaera tresna programatikoa da, arau-baliorik gabea, eta, beraz, ezin du eraginik izan ordenantzaren edo erregelamenduaren baliozkotasunean.

Kodea	H26/00083	Udala	Arrasate/Mondragón	
Data	2026/urt./21	CUDO	000.0055.AAA1EPVR.8.GLeZ	
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1EPVR8.GLeZ			
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025SSEC0047

Gaia: ARAUDI PLANA 2026
Hasiera eguna: 2025/12/10

Araudi planaren xedea da, urtean onartu nahi diren ordenantzen plangintza egitea, baina horrek ez du eragozten araudi plan horretan sartuta ez dauden ordenantzak onartzea, baldin eta behar bezala justifikatuta badago. Administrazio-espeditentean jasoko dira justifikazio txosten horiek.

Horregatik guztiagatik, araudi plan honen arrazoia ez da lege-agindu bati erantzutea, segurtasun juridikoan eta gardentasun-printzipioan oinarritutako jarduera bat baizik. Gainera, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen, 4.c artikuluan, udalerri, lurralde-izaerako administrazio publikoak diren aldetik, betiere beren eskumenen esparruan programazio- edo plangintza-ahala aitortzen die.

Planaren proiektua egiteko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan: segurtasun juridikoaren eta bidezko konfiantzaren printzipioak bermatzea Udalaren ordenamendu juridikoan; proposatutako arau-ekimenak bat etortzea elkarren artean eta udal-ordenamendu juridikoarekin; eta eremu material jakin baten erregulazioan etengabe egin beharreko aldaketak saihestea.

Hori horrela, sailekin kontsulta egin da, eta horiek jarraian zehazten diren ordenantza proposamenak egin dituzte 2026ko Araudi Planean sar daitezen:

2026RAKO ARAUDI PLANA

PERTSONEN BATZORDEA:

“ARRASATEKO UDALTZAINGOAREN ARAUDIA ALDATZEA

Arrasateko Udaltzaingoak berez, bere arautegia badu. Oraingo honetan, ordea, 24/2024 dekretuak ezarritako beharrei egokitzeko aldaketa batzuk egin beharko dira aipaturiko arautegian. Arautegi honen xedea, orain indarrean dagoenari; Arrasateko Udaltzaingoa armamentuari, baliabide teknikoari, defentsa-baliabideei eta polizia- kidego horren hornidurari dagokienez arautuko duten prozedurak, jarduteko irizpideak, barne-funtzionamendua, defentsa-elementuak eta horien ezaugarri teknikoak, elementu horien berrikuspenak eta agenteen prestakuntza ezartzea izango litzateke.

Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzaingoaren armamentua eta bestelako baliabide teknikoak arautzeko eta hura defendatzeko eta hornitzeko martxoaren 5eko 24/2024 Dekretuak ezarritako aginduari erantzuten dio erregelamendu honek. Dekretu horren azken xedapenetako hirugarrenak urtebeteko epea ematen die Euskal Autonomia Erkidegoko udalei, epe hori EHAAan argitaratzen den egunetik aurrera hasiko da, hau da, 2024ko martxoaren 19tik aurrera, erregelamenduan ezarritakoari egokitzeko, 6., 7., 13.1 eta 13.2 artikuluetan.

Dekretu honek Euskadiko Udaltzaingoetako agenteek izan eta eraman beharko dituzten armak, baliabide teknikoak eta defentsako baliabideak eta horien guztien hornidura deskribatzen ditu.

Berrikuntza horiek guztiak indarrean dagoen arautegian gehitzeko egin beharreko eraldaketa litzateke.”

Kodea	H26/00083	Udala	Arrasate/Mondragón
Data	2026/urt./21	CUDO	000.0055.AAA1EPVR.8.GLeZ
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1EPVR8.GLeZ		
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia			







Esp. kodea: 2025SSEC0047

Gaia: ARAUDI PLANA 2026
Hasiera eguna: 2025/12/10

“LAN POLTSAK KUDEATZEKO ARAUDIA ALDATZEA

Udalbatzarrak 2009ko abenduaren 3an onartu zuen behin betikoz Arrasateko Udalaren Lan Poltsak Kudeatzeko Araudia. Ikusita, uneko arau, antolaketa eta gizartean dauden eskakizunetara egokitzeko beharra, eta aldi berean, Administrazioaren jarduna eraginkorragoa izaten bilatuz, araudi hori berrikusi egin zen, azken helburua betiere Administrazio publikoaren beharrak ahalik eta modu eraginkor eta efizientean aseak izan daitezen. Hori horrela, Udal Plenoak, 2023ko otsailaren 8an egindako bilkuran, Arrasateko Udaleko lan poltsak kudeatzeko araudi berria behin betiko onartu zuen.

Ordutik hona emandako denboran frogatu ahal izan da bere edukiaren arlo batzuk aldatu eta egokitzearen komenientzia, kudeaketa zailtasunak antzemanda. Horregatik, lan poltsak kudeatzeko araudia aldatzea proposatzen da, beti ere legearekin inolako kontrakotasunik izan gabe eta udal baliabideak era arrazionalen eta efizientean erabili ahal izateko.”

PARTEHARTZE ORDENANTZA ONARTZEA

Herritarren Partaidetzarako Ordenantza, herritarrek bizitzan eta udal-kudeaketan parte hartzeko moduak, bitartekoak, prozedurak eta bideak arautzen dituen tresna da. Ordenantza hori estrategikoa da herritarrek ahaldundutako eta gobernantza-eredu berrietan sakontzeko.

Arrasateko Udalak partehartze-irizpide batzuk dauzka onartuta, baina gaiaren garrantzia ikusita, arau maila duen ordenantza bat onartzea egokitzen jotzen da.

HIRIGINTZA, TRANTSIZIO EKOLOGIKO ETA MUGIKORTASUN BATZORDEA:

ARRASATEKO UDALERRIAN EGUZKI ENERGIA HARTZEKO SISTEMAK INSTALATZEA ARAUTZEN DUEN 2/2021 ORDENANTZA ONARTZEA

Ordenantzaren 4. artikulua ezartzen du edozein motatako zein potentziako sistemari buruz ari garen, jarduera baimena eta obra baimena lortu beharko direla. Aldiz, Lurzoruaren Legearen aldaketak zein Ingurumen Administrazioaren eragotzi egiten dute definizio hori. Kasuren baten salbuespenak daude jarduera baimenari buruzkoak, beste batzuetan komunikazio hutsez abiatu daitezke. Kasu bera gertatzen da obra baimenekin ere, salbuetsiak baitaude autokontsumora bideratutako instalazio gehienak, horietan komunikazio hutsez gauzatu daitezkeelarik obrak.

Horregatik komenigarri ikusten da Ordenantza osoaren berrikusketa bat, izan ditzakeen legeko talkak zuzendu eta haien helburuekin lerratzeko.

Kodea	H26/00083	Udala	Arrasate/Mondragón	
Data	2026/urt./21	CUDO	000.0055.AAA1EPVR.8.GLeZ	
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1EPVR8.GLeZ			
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025SSEC0047

Gaia: ARAUDI PLANA 2026

Hasiera eguna: 2025/12/10

APARKATZE ETA IGAROTZE MUGATUKO SISTEMA (TAO SISTEMA)
ARAUTZEN DUEN ORDE-NANTZA ALDATZEA:

Udalak Mugikortasun Plan berria onartu du 2025ean. Bertan hainbat neurri jasotzen dira trafikoaren zein aparkalekuen gain eragina daukatenak.

Gainera, egun indarrean dagoen TAO sistemaren funtzionamenduak hiru urte pasa bete dituenean, hobetu daitezkeen hainbat alderdi ere hautemanda dauzka udalak.

Azkenik, TAO sistemaren kudeaketarako zerbitzu-kontratua ere 2027an amaitzekoa da. Garrantzitsua da, hortaz, balizko kontratu berri bati begira ere, TAO sistema egonkor bat ezarriko duen Ordenantza berri bat idaztea.

Horiek horrela, beharrezkotzat jotzen da Ordenantza horren berrikuspen bat abiatzea.

GARAGARTZAKO ORTU EKOLOGIKOEN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO
ERREGELAMENDUA ALDATZEA:

Erregelamendu horren funtzionamenduak erakutsi du badirela hainbat kontu udalak modu eraginkorragoan gauzatu ditzakeenak; adibidez altak eta bajak. Hori horrela, beharrezkotzat jotzen da Erregelamendu hori berrikustea, ahal beste irabazteko ortuen funtzionamenduaren eta kudeaketaren eraginkortasunean.”

LOKALAK ETXEBIZITZA BIHURTZEAREN GAINEKO UDAL ORDENANTZA
ARAUTZAILEA:

Udalak eskaera luzatu dio Jauralaritzari Etxebizitza Merkatu Tentsionatuko gune izendatu dezan udalerria. Horretarako, etxebizitzaren egoeraren analisia jasotzen duen dokumentu bat eta ekintza-plan bat onartu zituen udalak. Bada, ekintza-plan horretan jasotako ekintzetako batek Ordenantza honen berrikuspena egitea jasotzen du, ahal beste zabaltzeko lokalak etxebizitza erabilerarako aldaketak gauzatzeko. Horren helburua: etxebizitza merkatuko eskaintza ahalik eta gehien zabaltzea.

Eremu Tentsionatu izendatzen dutenean, Udalak konpromisoa hartuko du ekintza planean jasotako neurriak ezartzeko. Hori horrela, ezinbestean berrikusi beharko du ordenantza.

TABERNA, KAFETEGI ETA ANTZEKOETARA ZUZENDUTAKO
ESTABLEZIMENDU PUBLIKOAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA:

Ordenantza hau 1998an onartu zuen Udalbatzak. Orduaz geroztik hainbat arau-aldaketa izan dira administrazioaren maila guztietan (estatua, autonomia erkidegoa edo udala bera) nahikoa zentzugabe bihurtu dutena Ordenantza bera.

Ordenantzan arautzen diren alderdi gehienak ikuspegi teknikitik arautzen dira eta horietarako badira udalaz gaindiko erakundeen arauak: kode teknikoa, irisgarritasun araudia, jardueren inguruko araudia, eta abar. Ordenantzan jasotako arauen eta aipatu horien guztien artean hainbat kontraesan

Kodea	H26/00083	Udala	Arrasate/Mondragón
Data	2026/urt./21	CUDO	000.0055.AAA1EPVR.8.GLeZ
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1EPVR8.GLeZ		
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia			







Esp. kodea: 2025SSEC0047

Gaia: ARAUDI PLANA 2026

Hasiera eguna: 2025/12/10

daudenez, horiek guztiak bertan behera uztea legokioke, arau orokorrak liratekeelarik bete beharrekoak.

Bestalde, Ordenantzak arautzen du halako establezimenduen artean gutxienik egon beharreko distantzia. Hori ez du beste ezein arauk arautzen eta, hortaz, arau izaera mantentzeko modua izango luke. Hala ere, udalak hausnartu behar du ea mende laurdena igaro ondoren distantzia horien ezarpena ekarri zuten arrazoiek bizirik dirauten ala ez.

Ondorioz, ordenantza osoaren berrirakurketa, egokitze eta balizko beharrian berrien oinarrian aldatu beharko da araua.

INGURUNEA BABESTEKO UDAL ORDENANTZA, ZARATAK ETA DARDARAK IGORTZEAREN AURKA:

Ordenantza hau ere aurreko mendean onartutakoa da; 1984an, hain zuzen ere. Helburu zeukan herrian zarata zein bibrazioak sor zitzaketen jarduera, instalazio zein ibilgailuei mugak ezartzea.

Ordea, 40 urte geroago, zarata eta bibrazioak arautzen dituzten hainbat lege eta dekretu onartu dira bidean, guztiz zentzugabeko egiten dutenak udal ordenantza hau, hala nola:

- Estatuko 31/2003 Legea, azaroaren 17koa, zaratarena.
- Estatuko 1513/2005 Errege-Dekretua, abenduaren 16koa, aurreko legea garatzen duena zarataren ebaluazioari eta kudeaketari dagokionean.
- Estatuko 1367/2007 Errege-Dekretua, urriaren 19koa, legea garatzen duena zonifikazio akustikoari, kalitate-helburuei eta emisio akustikoei dagokienean.
- EAEko 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, EAEko kutsadura akustikorena.

Horiek guztiak horrela, ordenantza hau bertan behera uzteko prozedura abiatzea proposatzen da 2026rako.

ZIRKULAZIOARI ETA HERRI BARRUKO BIDEEN ERABILEREI BURUZKO UDAL ORDENANTZA ALDATZEA:

Gaur egun indarrean dagoen Zirkulazio eta Herri barruko bideen erabilerari buruzko Udal ordenantza 2014ko martxoaren 19an onartu zuen udal Osoko Bilkurak: eta 2014ko apirilaren 8an argitaratu zen GAOn.

Aipaturiko Ordenantza hori zaharkituta geratu da bere zenbait arau eta definizioetan, hala nola, mugikortasun pertsonaleko ibilgailuei buruz, abiadura orokorreari buruz eta beste hainbat esparruetan. Izan ere, trafiko Legediak ezarritako aldaketan ez baititu txertatu.

Gainera, beharrezkotzat jotzen da eranskin bat gehitzea ordenantza horretara. Bertan, bide publikoetan egiten diren obren seinalizazioa arautuko litzateke.

Kodea	H26/00083	Udala	Arrasate/Mondragón	
Data	2026/urt./21	CUDO	000.0055.AAA1EPVR.8.GLeZ	
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1EPVR8.GLeZ			
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025SSEC0047

Gaia: ARAUDI PLANA 2026
Hasiera eguna: 2025/12/10

OGASUNA BATZORDEA:

“ORDENANTZA OROKORRA ZUZENBIDE PUBLIKOKO TRIBUTU ETA BESTE DIRU-SARRERA LOKALEN KUDEAKETA, KOBRANTZA ETA INSPEKZIOA ARAUTZEN DUENA

Ordenantza honen xedea da:

- Zuzenbide publikoko tributu eta beste diru-sarrera lokalen kudeaketa hobetzea eta erraztea ekar dezaketen prozedurazko aspektuak arautzea.
- Hainbat Ordenantza Fiskaletan komunak diren aspektuak erregelatzea, hartara horiek errepikatzea saihestuko baita.
- Udalak zehaztu edo garatu beharreko gaiak erregelatzea.
- Herritarrak informatzea bai indarrean dauden araez, bai tributu-pagatzaileen eskubideez eta bermeez, horien berri jakitea denen interesekoa gerta baitaiteke, tributuzko obligazioak behar bezala konplitze aldera.
- Orain arte bereiztutako atzerapen eta zatikapenen udal ordenantza integratzea.”

KIROL BATZORDEA:

“KIROL INSTALAZIOEN ARAUDIA BERRIKUSTEKO PROPOSAMENA:

Udal Plenoak 2015eko abenduaren 15ean egindako bilkuran erabaki zuen behin betiko onartzea Arrasateko Kirol instalazioen araudia eta 2016ko maiatzaren 26an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean behin betiko onarpena argitaratu zen.

Araudia indarrean sartu zenetik, funtzionamenduari dagokionez zenbait aldaketa eman dira (Uarkapeko instalazioak aldatu eta egokitu egin dira, erreserba moduak aldatu dira, ordainketa modu berriak dauzkagu...). Beraz, araudia egokitzea beharrezkoa ikusten da, besteak beste, ondorengo gaien inguruan:

- Uarkapeko instalazioetan gimnasioa jarri da.
- Sarbidea eta ordainketa moduak eguneratu behar dira (txartelarekin ordain daiteke gaur egun).
- Erreserba finkoak ez dira onartzen gaur egun.
- Boulderraren funtzionamendua egokitu behar da. (lehen sarbide propioa zeukan).
- Zehapen araubidea eguneratu.”

Kodea	H26/00083	Udala	Arrasate/Mondragón
Data	2026/urt./21	CUDO	000.0055.AAA1EPVR.8.GLeZ
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1EPVR8.GLeZ		
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia			







Esp. kodea: 2025SSEC0047

Gaia: ARAUDI PLANA 2026
Hasiera eguna: 2025/12/10

ONGIZATE BATZORDEA:

“GIZARTERATZE ETXEBIZITZA ZERBITZUAREN ARAUDIA:

Orain arte larrialdietarako etxebizitza izaera izan du. Aurreikuspena da gizarteratze helburua ere jasotzea bazterkeria arrisku egoeran daudenei eskaintzeko. Eta kokatuko litzateke 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuak arautzen dituenak, garatzen duen Zorroren Dekretuaren baitan (185/2015 Dekretua), hain justu ere 1.9.2. baliabidean. Izaeran aldaketa sakona suposatuko du, eta baita betebeharretan, zerbitzu moetan, funtzionamenduan eta udal antolaketan ere.”

AUZOEN ETA OZM BATZORDEA:

GUNE PUBLIKOAN HILETA OSPAKIZUNAK BAIMENDU ETA EGITEKO ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA ALDATZEA.

2010eko uztailaren 8an onartua eta 2012ko martxoaren 27an aldatutako ordenantza. Azken 15 urtetan materia honetan gizartean izandako aldaketak ordenantzaren berrikustea eskatzen dute, eta eguneraketa egitea aurreikusten dugu.

KALE GARBIKETARI DAGOKION UDAL ORDENANTZA ALDATZEA.

2016ko uztailak 12an onartutako ordenantza. Azken urteetan udal gobernuan materia honetan izandako sentsibiltate aldaketak ordenantzaren berrikustea izatea aurreikusten du.

Horiek horrela, Pertsonen Batzordeak honako hau proposatzen du:

Lehenengoa: 2026rako Araudi Plana onartzea aurrez aipatutako testuarekin.

Bigarrena: Aipatutako plana udal web orrian erakusgai jartzea.”

Eta hala jasota geratzeko eta ondorio egokiak sortzeko, ziurtagiri hau egin eta sinatzen dut, Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2026ko urtarrilaren 21ean.

OE

Alkatea

Kodea	H26/00083	Udala	Arrasate/Mondragón
Data	2026/urt./21	CUDO	000.0055.AAA1EPVR.8.GLeZ
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1EPVR8.GLeZ		
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia			



